



## Barne araudia

- Hiru abisu, hutsegite arin bat.
- Hutsegite arin bat: Hilabete elkartera sartu gabe edo 8 orduko lana elkarterako 2 egunetan.
- Hutsegite larri bat: urtebete elkartean sartu gabe edo 10 egun elkarte lana( 8 ordu)
- Hutsegite oso larri bat: bi urte elkartean sartu gabe.

### BAZKIDE IZATEKO EGIN BEHAR DENA:

- Bazkide egiteko eskabidea bete.
- Zarautzen erroldatuta egon.
- NAN aurkeztu.
- Kuota helbideratu.

### BAZKIDEEN ESKUBIDEAK:

1. Bazkide guztiek Elkartea erabili ahal izango dute goizeko 05.00etatik gaueko 23.00etara.
2. Bazkide bakoitzak bere giltza elektronikoa propioa izango du Elkartera sartzeko.
3. Tabla Elkartean uzten ez duen bazkideari deskontua aplikatuko zaio urteko kuotan.
4. Bazkideek takilak eskuragarri izango dituzte bertan beren objektu pertsonalak uzteko.
5. Barra bat egongo da bazkideek beren traje bustiak lehortzen bertan utz dezaten.
6. Bazkide guztiek eskatu ahal izango dute Zuzendaritza Batzordearen bilera gela erabiltzea.
7. Bazkide bakoitzak gehienez 2 lagun ekarri ahal izango ditu bisitan instalazioetara. Zuzendaritza Batzordearen baimen berezi bat eduki ezean, **ezin izango dituzte instalazioak erabili.**

### BAZKIDEEN BETEBEHARRAK:



1. Moralaren eta ohitura onen arabera, guztiz debekatuta dago lokalaren barruan erretzea eta edari alkoholdunak edatea. (Abisua)
2. Higiene eta heziketa printzipioak errespetatu behar dira, gutxi gorabehera gurasoek egingo luketen moduan. (Abisua)
3. Dutxa, ezin izango da 5 minutu baino gehiago erabili. (Abisu bat)
4. Bazkide bakoitzak tabla esleitu zaion gunean soilik utzi ahal izango du, ezin izango du beste bazkide bati esleitutako gunea erabili. (Abisua)
5. Elkartea ixterako orduan, **bazkideek ezingo dute beren objektu pertsonalak takiletan edota aldageletan utzi. Objektu guztiak (trajeak, skate-ak, erropa, etab.) jaso egingo dira.** Hauek bazkideari itzuliko zaizkio hilbetako azken ostiralean soilik, bazkideak Elkarteari aurretiazko eskabidea egiten badio. (Abisua)
6. Higieneagatik, Elkartetik irtetzean, ezin izango dira bustita dauden jantziak elkartearen barruan utzi. (Abisua)
7. Bazkide guztiek ingurunea errespetatu beharko dute; garbi eta oztoporik gabe edukiko dute. (Abisua)
8. Bazkideek ezin izango dituzte elkartera ikastaroren bat egitera datozenak diskriminatu; hala ere, haiek aldageletara baino ezin zango dira sartu. (Abisu bat)
9. Guztiz debekatuta dago Elkarteko bulegoan sartzea. (Arin bat)
10. **Alkohola edatea eta Erretzea** debekatua dago. (Arin bat)
11. Denek errespetatu behar dituzte elkarteko estatutuak eta Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak. (Arin bat)
12. **Elkarteko zona hezea eta zona lehorra errespetatu beharko dira. Ezin izango da zona lehorra bustita sartu.** (Arina)
13. Elkarteko materialak pegatina edo ZSE jarrita izango du.
14. Higieneagatik taulak **fundarik gabe** eduki behar dira. (arriña)
15. **Ezin izango da beste baten materiala hartu, materialaren jabeari jakinarazi gabe .** (ARINA)
16. **MATERIALA LAPURTU . (LARRIA)**



### **GILTZA ELEKTRONIKOAREN ERABILPENA:**

- Bazkide guztiak bere giltza elektronikoa propioa izango du.
- Segurtasuna dela eta, Elkarteko ateak une oro itxita mantenduko dira, beraz, bazkideek giltza erabili beharko dute Elkartera sartu ahal izateko.
- **Giltza, ezin izango zaio inori utzi. . (Arina)**
- Giltza galduz gero, Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko zaio.
- Ezin izango da giltzaren kopiarik egin Zuzendaritza Batzordearen baimenik gabe, hutsegitea baita.

### **ZUZENDARITZA BATZORDEA:**

- Zenbait kasutan (zozketak, sponsorrak, jaiak, txapelketak, bidaiak, elkarteen arteko txapelketak, bilerak...), Zuzendaritza Batzordeak komisioak osatu ditzake eta bere erantzukizunak haien esku utzi.
  - Zuzendaritza Batzordeak erabakitako komisio batek aukeratuko ditu txapelketetan parte hartuko dituztenak.
1. Elkartek hartutako erabaki guztiak Zuzendaritza Batzordearen onespenez hartu beharko dira.
  2. Botoa emateko eskubidea, 16 urtetik gorakoek izango dute.
  3. Araudi honetako edozein puntu aldatu ahal izango da edozein bazkidek hala eskatuz gero eta Zuzendaritza Batzordeak aldaketa egokitzat jotzen badu.
  4. BEKADUN Bazkideek Zuzendaritza Batzordeak erabakitako txapelketetan (elkarteen arteko txapelketetan, ...) aurkeztu beharra izango dute. Baten batek ezingo balu horietako batera joan, justifikatu egin beharko du agiri baten bitartez.
  5. Bazkideen iradokizunak kontutan hartuko dira.
  6. **Lapurretak egonez gero edo bazkideren baten materiala apurtzen bada, Zuzendaritza Batzordeak ez ditu bere gain hartuko.**